


KANALAK

Bezeroekiko harremanetan, gure bezeroekin zer motatako harremanak izango ditugun azaldu dugu eta orain harreman horiek nola eta zeren bidez egingo ditugun aztertuko dugu.

Esan dugun bezala harreman mota ezberdinak izango ditugu eta kanal ezberdinen bitartez jarriko ditugu martxan enpresa gehiago hazi ahal izateko.


Lehenengo harreman mota telefono bidezkoa da. Zerbitzu honek ondo funtziona dezan, gure enpresan departamentu espezializatu bat izango dugu telefono deiak erantzuteko. Kanal honen bitartez komunikazioa erraza eta zuzeneko izatea egingo dugu.



Bezeroekiko harremanetan, aipatu dugun bezala, Europa mailan oso ezaguna den enpresa batekin (Media Marktekin) batera egingo dugu lan, gure helburua mugikorraren informazioa heldu gehiagorengana iristea da eta horrela teknologiek duten harremana erraztea.

Iragarkiak egingo ditugu, hauen bitartez gure produktuaren abantailak azaltzeko eta ezagun egiteko. Horretarako adibide garbi bat telebista edo horrelako hedabide batetako iragarki bat da. Gaur egun oso garrantzitsua den beste komunikazio bide bat ere jarriko dugu martxan: sare sozialak, hau da, Instagram, TikTok, Twitter, etab.

Hauen bidez jende gaztearengana iritsiko gara eta ikusitakoan beraien aiton-amonetaz gogoratuko dira eta agian gabonetako opari gisa erosiko die.



Egunkariak ere erabiliko ditugu, heldu gehienek egunkaria irakurtzen dutelako eta oso modu erraz bat izan daitekeelako beraiek gure proiektua, hau da, mugikorrak ezagutu ahal izateko.

Hau guztiarekin esan dezakegu kanal mota ezberdinak izango ditugula gure bezeroekin komunikatzeko.